

Arrasate

P R E S S O

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 25a / 679. zenbakia




DOLARA ANAIK

25 urte jaiak alaitzen

ORAIN ETA HEMEN: UDAL LANGILEEN PROTESTA/9 • KULTURA: PORTALOI ELKARTEA/12

EDERTASUN GIDA/2

Edertasun gida



ILE APAINDEGI mistoa

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

BITXORI
ile apaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

Maatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 · ARRASATE · 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT


KALEINKESTA/ Uste dozu aurtengo udan juen dan urteko beruek pasauko dittugule?




LUIS MARI VITORIA
Langillie



MARIA DEL TRANSITO VEGA
Langillie



XABIER PRIMYO
Langillie



ALBERTO GARCIA
Langillie



XOSE MANUEL GONTAN
Langillie



ELENA ATIENZA
Langillie

Esaten daue ezetz, eguraldi ona egin biher dauela, baiñe holako berorik ez. Juen dan urtien nahikue lan euki geuen holako beruekin, eta leku freskuek topetan ibilli gitzen uda dana.

Neuk pentsetan dot erdibidien geratu biher garena. Ez dau egin biher juen dan urteko berorik, baiñe eguraldi ona eukiko dogu. Juen dan urtekue gogorra izen zan, eta ez dot gure holakorik.

Ez dakit ba! Akaso bai, akaso juen dan urteko beruek egingo dittu. Dana dala, juen dan urtien kanpuen egon nitzen, eta bakaziñotan ninguenez ez neuen askorik sufridu.

Idearik be ez dauket. Radi-xuen eta telebisiñuen gauza asko esaten daue, baiñe bi egunekue ez badaue asmaketan, uda danien ze eguraldi egin biher dauen zela asmatuko daue ba!

Bai, pentsetan dot aurtten be bero haundixe egin biher dauela. Juen dan urtien lanien ibili nitzen, eta ez neuen bape ondo pasau. Aurtten bakaziñotan egongo naz, hortan...

Eguraldi iragarliek esaten daue baietz, bero haundixe egin biher dauela. Juen dan urtien Galizian egon nitzen kanpin baten lanien, eta egixe esatiarren, han eguraldi edarra egin euen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAINDU BARIKO ORUBEAK Iturriotz kalean dagoen orube bateko landareak eta zuhaitzak asko handitu dira, eta dagoeneko horietako batzuk orubetik kanpo irten dira. Inguruan bizi den lagun batek aditzera eman du Udalak edo orubearen jabeak arazo hori konpondu beharko luketela, eta beldur dela, hori konpondu ezean ezberharren bat gerta daitekeelako.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 9	KIROLA / 15	GAZTEAK / 16
Euskalgintzaren batzarra	Auto lasterketak	Gazte Topaketa
Euskalgintzaren Mahaiak ohiko batzarra egin zuen ekainaren 9an. AEDn egin zuten batzarra.	Auto lasterketan dabilzan Igor Orobengoarekin eta Iñigo Saizarrekin izan gara berbetan.	Bartzelonan Munduko Gazte Topaketa egingo dute. Gazte Sailak dirulaguntzak emango ditu.

ASTEKODATUA

138.330

EURO IZANGO DA SAN JUANETAKO AURREKONTUA

San Juan jaietako aurrekontua 138.330 euro da. Aurreko urteekin alderatuz, pixka bat handiago da aurtengoa. Besteak beste, erraldioen eta fanfarreen kontzentrazioak antolatu dituzte.

BESTEKEKESANA

“MUN ez dugu inongo balio kooperatiborik jaso. Urte hauetan bizi eta ikusitako hainbat jokabide eta jarrerak

benetan kooperatibismo hitza matrikulazio kanpainetako orrietan marketin arrazoiek eragina ez ote den kuestionatzera eraman gaituzte. (...) Pertsona bat 5.3ko indize baten truke zuzendari izateko prest bada, baina 4.7ko indize baten truke ez, pertsona horrek ez ditu unibertitate kooperatibista honetako baldintzak betetzen. (...) **Arazoa, behin eta berriz errepikatzen dena, Ingeniaritzako 2. mailatik aurrera sortzen da, bakoitzak espezialitatea hautatzen duenean: klase baten hogeita bost ikasle baldin badaude, eta horietatik bostek euskaraz ez badakite, ikasgaiak gartzelaniaz ematen dituzte”**

PELLO OTXANDIANO
‘BERRIA’/04-06-15

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



San Juan jaiak

Idazki hau agertu orduko, aurtengo San Juan jaiak bukatzeaz egongo dira, baina gauza garrantzitsu bezala eskainiko diet nire zatitxo hau.

Egia da gauza askorik ez dakidala San Juan jaietaz buruz, nire historia txikiak eman dezakedana soilik. Baina aspaldiko gauza dela esango nuke, agian oraindik San Juan ospatzen ez zenekoa eta gauaren garaipena soilik ospatzen zenekoa. Arrasatek oraindik ez zuen Mondragon izena ezagutu egingo. Eta ordutik hona arrasatear askok jai nagusi bezala ospatu dituzte egun hauek. Orduko bizitza gogorrean alaitasun irla bilakatuko zena urtero. Urte guztiko ardurak eta kezak egun batzuetarako albo batera utziz. Aurreko garaietan ez zen kanpora joateko aukerarik egoten ez oraingo jaietan ezta ere abuztuan.

Jaiak ere urteen poderioz aldatuz joango ziren, azken aldiak ditugun danborrada,

dianak, su artifizialak, barrakak... Suposatzen dut beti ez direla jaiak berdin ospatuko, eta gauza batzuk galdu egingo baziren ere, beste batzuk eskuratu egingo genituen. Badira oraingo honetan ere bereiztu nahi ditudan bi ekintza: danborrada, alde batetik; eta goizetako diana, bestetik. Ekintza hauek antolatzen dituzten taldeak urteak betetzen dituztelako alegia, SUDCek 40 urte eta Arrasateko Gaiteroek 25 urte. Benetan poztekoa eta zoriontekoa jaien zerbitzura hainbat urteetan lana egin izana. Segi horrela!

Badakit, bestalde, jaiak antolatzerakoan zailtasunak izan direla ere, baina zailtasun horiek ez ditzatela jai hauen helburuak ahaztu arazi. Aurtengoan ere, aurrekotan tea gerokotan izatea espero dudan bezala, ongi pasatzeko aukera beharko dute jaiak.

Espero dut aukera duenak eta kanpora joan ez denak jaiak ongi igarotzea.

“Aspaldiko gauza da suarena, gauaren garaipena soilik ospatzen zenekoa. Arrasatek oraindik ez zuen Mondragon izena”

Arrasate
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com


ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Boliñaga
Natali Martinez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 25**
Azkoaga. Iturriotz 17..... 943 79 79 99
- ZAPATUA, 26**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1... 943 79 22 26
- DOMEKA, 27**
Irizar. Erguin 11..... 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 28**
Amezua. Santa Marina 32... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 29**
Español. Araba etorb. 14... 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 30**
Ruiz. Maala 31..... 943 79 14 09
- EGUENA, 1**
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 2**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Iguualatoría..... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak..... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak..... 112
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
DYA..... 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak..... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak..... 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate..... 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea..... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea..... 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62
Gasa..... 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak..... 943 79 12 22
PESA..... 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza... 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron..... 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parroikia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parroikia**
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

UDAL EGITARAUA

Egubakoitzean, erraldoi eta kilikien konpartsaren irteera, 19:00etan. 19:15ean, Eguzki Laruri agurra; 20:00etan, *Otiacich* ikuskizuna; 22:30ean, Euskadi Gaztearen Disko Festa Herriko Plazan; eta 23:00etan, *Malaje* ikuskizuna Monterronen.

Bihar, zapatua, entzierroa, 09:00etan; 12:00etan, fanfarreen kalejira; 16:00etan, Lauko Xake Torneoa; 18:00etan, arku tiroketa; 19:30ean, Soka Dantza, eta 20:00etan, Trio Chamuyo, biak Herriko Plazan. 22:30ean, Ruper Ordorika Monterronen.

Domekan, erraldoien bilkura, 11:30ean; 13:30ean, gaitariei eta SUDCi omenaldia udaletxean.

TXOSNEN EGITARAUA

Egubakoitzean, kontzentrazioa Herriko Plazan, 19:30ean; 20:00etan, sagardo eta pintxo dastatzea.

Bihar, zapatua, herri bazkaria, 14:00etan; 16:00etan, txikiteoa Aretxabaletako batukadarekin; 19:00etan, olinpiada olinpiakoak; eta 22:30ean, Anger eta Kuraiaren kontzertua gaztetxean.

Egubakoitzean, batez ere, eta zapatuan alde zaharreko tabernetan kontzertuak egingo dituzte.

AEDren AGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

KONTSEILUAREN KAMISETAK
Kontseiluaren *Hizkuntza eskubideak, denon konpromisoa* leloarekin kamisetak atera dituzte, eta AEDn daude salgai 20 eurotan.


URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Bergarako 'Miserableak' Arrasatera ekarri zuten

Bergarako Musika Eskolak 10. urteurrenean *Les Misérables* lana euskaratu eta prestatu zuen. Guztira, 57 aktorek eta 65 musikaririk esku hartu zuten. Euskal Herriko hainbat herritan egin zuten ikuskizuna, eta Amaia Udal Antzokian arrakasta handia izan zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"San Juan-su"



San Juan bezpera gauean egiten den sua.
— *Urtero eitten die gurian san juan suak.*

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Astelarena, 21	9 °C
MAXIMOA Martitzena, 22	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	17,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	28 °C	10 °C	- l/m²
Eguena, 17	31 °C	10 °C	- l/m²
Egubakoitza, 18	26 °C	10 °C	14 l/m²
Zapatua, 19	23 °C	13 °C	0,4 l/m²
Domeka, 20	20 °C	14 °C	0,1 l/m²
Astelarena, 21	26 °C	9 °C	2,8 l/m²
Martitzena, 22	32 °C	16 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Astelehenetik aurrera, freska zaitez Arrasate Irratiko 'Uda giroan' saioarekin

Astelehenetik aurrera, udako saioarekin, hainbat herrikuntza izango ditugu herriko irratan. Aitziber Aranburuzabala eta Nerea Zubieterekin batera, Mainer Arregi kazetariaren ahotsa entzungo dugu. Arregi oñatiarra da, eta Goiena Telebistan lan egindakoa. Eta azken hilabeteotan Arrasate Irratiko *Noraezean* saioa esatari lanetan ibili eta gero, udako goizeko saioan esku hartuko du.

Esan bezala, astelehenetik aurrera, herriko irrata udako

arropaz etorriko da. Hortaz, ohiko albisteez gain, udako gaien gaineko erreportajeak eta elkarrizketak egingo ditugu, Joxe Landaren eguraldi iragarpena jaso eta beste hainbat sorpresa. Are gehiago, 107.7arekin, hondartzetan, urtegiatan eta igerilekuetan freskatuko gara. Gainera, beste irrati batzuk ezagutu eta horien bitartez, Euskal Herriko beste txoko batzuk bisitatuko ditugu.

Parte hartu irratan: zozketak, zorion agurrak... Hori guztiori, 943 71 17 31 telefonora deituta.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Joxe Landa eta Pello Zabala, eguraldi adituak; jatun konpultsioen elkarte; Inazio Lakunza, Arrasateko alkatea; Leire Okarantza abokatuaz etxebizitza kooperatibetaz...

DOMEKA
10:00 **Asteko elkarrizketak.**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00-11:00 **UDA GIROAN**
Albisteak, Elkarrizketak, Hondartzak, igerilekuak eta urtegiak. Eguraldi iragarpena. Euskal Herriko txokoak ezagutzen. Zozketak, zorion-agurrak.

11:05 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:15 **Musika.**

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **UDA GIROAN** errepikapena.

19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

ASTEABIHITZETAN

Emakume Txokoaren ikasturte bukaera

Joan den egubakoitzean, ekainaren 18an, Emakume Txokoak ikasturtea bukatu zuen. Urtebete egin du lanean Emakume Txokoak, eta ekimen ugari egin ditu epe horretan: besteak beste, ikasturte osoa iraun duten hamaika ikastaro egin dituzte, eta beste sei iraupen laburrekoak. Txokoaren arduradunen esanetan, 230 bat lagunek esku hartu dute ikastaroetan. Ikastaroekin batera, berbaldiak ere egin dituzte, eta horietan, batez ere emakumeen lan egoera, emakumea eta politika eta sexu bien arteko arduren banaketa izan dute hizpide. Arduradunak pozik daude egindako lanarekin, eta datorren urterako ere egitarau aberatsa antolatu gura dute.

Ume eta gaztetxo mordoa Seber Altuben

Joan den eguenean jai usaina zabaldu zen erdialdean. Gaztetxoan oporretan daudela aprobeztatuta, Ibai Artek Rekolore taldea ekarri zuen kale antzerkia egitera. Horrez gain, Txatxilipurdi elkarteak Eguzki Laruren egunerako tailerrak egin zituen. Besteak beste, kamiseta tindaketa eta Txarangelurako maraka tailerra egin zituzten. Biak hala biak, Ibai Arteren ikuskizuna eta Txatxilipurdiren tailerrak, ordu berean izan ziren, eta jende mordoa batu zen Seber Altuben.

Lehenengo aldiz 'Patin Gaua' egin zuten

Mondragon Unibertsitateko ikasleek eta Athlonek antolatuta, joan den eguenean *Patin Gaua* egin zuten Arrasateko kaleetan, lehenengo aldiz. Herritar eta kanpoko ikasle dezentek egin zuten deialdiarekin bat, eta 36 bat lagun ibili ziren gauaz patinatzen.

Hori ikusita, esan dezakegu patinajea uste baino lagun gehiagok praktikatzeko dutela. Antolatzailerak oso pozik gelditu ziren, eta datorren urtean berriro egingo dutela esan zuten.



Holiday zirkua egon da Arruena parkean

Aurreko urteetan moduan, Holiday zirkua Arrasaten izan da, Arruena parkean. Ekainaren 17tik 22ra arte egunero egin dituzte hainbat ikuskizun. Ume eta guraso dezentek joan direla kontatu digute, eta pozik joan dira Holiday zirkuko kideak beste herri batera.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Hausnartzeko ospakizuna

Arrasatearrak jaietan murgilduta dauden arren, nik beste ospakizun bat gogora ekarri gura dut. *Berria* egunkariaren urteurrenaz ari naiz. Ekainaren 21ean, martitzenean, urtebete egin zuen euskara hutsezko egunkariak. Poztekoa, harritzekoa eta harro egoteko modukoa da herri honek daukan gaitasuna eta indarra; ez da edonolakoa,

halako komunikabidea itxi, zerotik hasi eta hain denbora laburrean beste proiektu bat abian jartzea.

Orain dela bost bat urte, *Egin* egunkaria eta *Egin* irrati itxi zituztenean ere, herritarrek *Gara* egunkaria sortzeko gai izan ziren. Baita *Ardi Beltza* ixterakoan, *Kale Gorria* egiteko ere bai.

Zoritxarrez, halako proiektu bat birsortzeko

kostua handiegia da, eta *Berria* itxi zutenean, hainbat ahots altxatu ziren -tardean, Eusko Jaurlaritzako batzuketan ezinez halako itxierak saihesteko neurriak hartu behar zirela.

Ezagun da halako neurririk ez dela hartu. Horregatik, orain dela bost bat urte itxi zuten *Egin*-en auzia oraindik argitu ez den arren, *Gara* ixteko ahaleginetan dabilta aspalditik. Eta *Berria* eta *Goienkaria*-ren etorkizuna ere beste batzuen esku dago.

ASTEKO IRUDIA



XABIER URZELAI

AGINTARIEN ETA HAINBAT HERRITARREN ARTEAN DAUDEN DESBERDINTASUNAK, AGERIAN

Hainbat herritarrendako, San Juan jaiak Salbearekin hasten dira. Udal agintariak San Juanen irudia udaletxetik San Juan Bautista elizara eraman dute, eta elizan Salbea egiten dute. Hainbat herritar segizioaren zain egoten dira; batzuk, San Juanen irudia ikustearren, eta beste batzuk, alkateari eta

zinegotzietan protesta egiteko. Aurtengo protesta iazkoa baino arinagoa izan da, baina lagun askok esku hartu zuten, eta pankartak eskuan zituztela agintariak eliza ateraino jarraitu zituzten. Atean tentsio uneak bizi izan ziren, baina azkenean ez zen ezer gertatu. /ARRASATE PRESS

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak

MUSIKA/ Arrasateko Gaiteroek 25 urte bete dute

Mende laurdena bete dute Arrasateko Gaiteroek, eta ez dute isiltzeko asmorik

UBANE MADERA

San Juanetan jo eta su ikusi eta ikusiko ditugu Arrasateko Gaiteroak kalez kale, erraldoekin edo erraldoi barik, gaitaren eta danborraren doinuarekin jai giroa iragartzien. Urtero moduan. Izan ere, urte mordoia dira Arrasaten gaitarien taldea dagoela: 25.

Gabonetan hasi ziren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak egiten. Eltziegoko gaiteroak & Friends taldea ekarri zuten ospakizun moduan, kontzertua egiteko. Aratusteetan dantza-taldearekin Otsagiko dantzen erakustaldia egin zuten, eta orain, San Juanetan, besteak beste, Nafarroako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako erraldoien bilkura egingo dute, azkeneko egunean, domekan, beraz. Horrez gainera, egun berean, Aitortzeko Ekitaldia egingo dute Udaletxean, eta, besteak beste, 25 urteotako gaitarien ibilbidea gogora ekarriko dute herriko agintariak.

Izan ere, badute zer ospatu Arrasateko gaitarien taldean, edozeinek ez du eta 25 urte betetzen, eurek moduan, musika-talde batean zaletasunez jotzen.

SEI LAGUNEN TALDEA

Gaur egun, sei lagunek osatzen dute Arrasateko Gaiteroak taldea: Eduardo Abarrategik, Lander Lorenzok, Iñaki Barrenak, Jose Ramon Perezek eta, jakina, Dolara anaiek, Enrikek eta Estebanek.

Baina, hain zuzen ere, azken bi anaia horiei zor diegu gaitaren doinua Arrasaten horren ezaguna eta ohikoa izatea, etxekoa, azken batean.

Orain dela 25 urteko Santamasetan sortu zuten Arrasateko gaitarien taldea. Enrike Dolarak kontatu digu zela izan zen hura: "Estebanek lehenagotik jotzen zuen atabala txistulariekin eta opor sasoiari Lizarrara-eta joaten zen. Han Iruñako gaitariekin harremanetan jarri zen, eta handik sortu zen ideia".

Anaia Enrikek lagundu zion Estebani, atabalarekin. Eta gaitarekin, berriz, Jose Angel Lazkano aretxabaletarrak. Geroago, Ramon Barrutiak bat egin zuen taldearekin.

Ordutik hona, jende aldaketa egon da Arrasateko gaitarien taldean: urte piloaren ostean, Ramon Barrutia joan egin zen eta Jon Iñaki Isazelaia sartu zen taldean. Honako hauek ere izan dira Arrasateko gaitari taldeko kide: Manu Piedehierro; Iñigo eta Jon Txintxurreta, Iñaki Arana, Dioni Caballero, Eduardo Abarrategi, Lur Sanpedro, Maitane Gomez de Segura, Mikel Albistur, Herrarte, Iñaki Barrera eta Lander Lorenzo.



Arrasateko eta bestelako herrietako kaleetan jotzeaz gain, CDa ere grabatu dute Arrasateko Gaiteroek, beste gaitari batzuekin batera.

*Orain dela
25 urteko
Santamasetan sortu
zuten Arrasateko
gaitarien taldea*

Gauzak horrela, 25 urteotan Arrasateko Gaiteroen taldean etengabe jarraitu duten bakarrak Dolarrak dira. Kontatu digute taldean hasteko, lehenengo instrumentua jotzen ikasi egin behar izan zutela: "Iruñara joaten hasi ginen, ikastera, Iruñako udal gaitari bandarekin". Ikasi ostean, taldea sortzeaz gain, eurak ere irakasle lanetan ibili direla esan digu Enrikek, Arrasaten.

BETEBEHARRA: JAIRIK JAI IBILTZEA

Jairik jai ibiltzea da gaitarien lan nagusia. Hala esanda, badi-rudi ez dela batere lan nekeza, baina ez da egia, nekea iritsi iristen da eta: "Aspertu ez gara egin, baina erritmoa jaitsi egin dugu. 18 urterekin edo 20 urterekin astakeriak egiten genituen: egun batean hiru herritan jo, adibidez. Baina halako gauzak egiteko gogoak joan egiten dira. Edozelan ere, talde moduan jarraituko dugu, duda

*Datorren
ikasturtean,
Arrasate Musikalen
eskolak ematen
hasiko dira*

barik; akaso beste 25 urtean" (barreak).

Beraz, oraingoz, behintzat, ez dute erreleburako beharrik, eta etorkizuna ere ez dute gaizki ikusten: "Datorren ikasturtean, Arrasate Musikalen eskolak ematen hasiko dira, eta espero dugu horrek laguntzea jende gehiago lortzen. Etorkizunerako ona da jende gehiago animatzea".

ARAZORIK LARRIENA, LOKALA

Hori bai, edozein taldetan moduan, gorabeherak izan ditu Arrasateko gaitarien taldeak. "Krisiak bai. Ez guregatik. Adibidez, urte piloan lokal barik egon ginen". Kontatu digute, esaterako, denbora batez soto batean ibili behar izan zutela entseguak egiten; Dolarraren lantegian ere urte piloan ibili dira. Azkenean, Udalarekin gorabeherak izan ostean, lortu zuten lokala. Gaur egun, Eskualdeko Ospitalearen atzeko lantegi

*Guk geuk gaita
izena aukeratu
genuen, Nafarroako
gaita delako eta guk
han ikasi genuelako*

zaharretako pabilioietako batean daude, txistulariekin eta txalapartariekin batera. Edozelan ere, lokala espazio aldetik eta egokia den arren, hezetasun handia dago, eta neguan, hotza eta iluntasuna. Aurrera begira, seguru aski, Saiolanen egingo duten Musika Etxera joango dira gaitariak, bestelako musika taldeekin batera.

INSTRUMENTUA: GAITA

Bestalde, gaitarien taldea eraldatzeaz gain, instrumentu moduan, gaita bera ere eraldatu da urtetan. "Tresna ebanozkoa izaten da, normalean, baina ezpelezkoak ere egiten dituzte. Bestalde, orain, tresna do naturalean dago. Lehen do sostenituan zegoen, altuago entzuteko; baina horrek arazoa zeukan: bestelako instrumentuekin ezin zen jo, eta do naturalean, bai".

Izenaren gainean ere galde-tu diegu, gaitari-dultzainero ber-

barekin zalantza sortu izan da eta. Enrike Dolarak argi utzi digu musika-tresna horri gaita esan behar zaiola: "Nafarroako talde guztiak gaitariak dira. Baina tresnaren duintasuna indartzeko-edo, dultzaina esaten hasi zitzaien. Orain, dultzaina eta halako izen arraroak ipini izan diekiote. Guk geuk gaita izena aukeratu genuen, Nafarroako gaita delako eta guk han ikasi genuelako. Araba aldean ere gaita esaten zai".

Kontuak kontu, gaita edo dultzaina, dultzaina edo gaita, instrumentu horren doinua entzuten segituko dugu Arrasaten, arrasatearren eskutik.

JENDEAK PARTE HARTZEN BADU, ONDO

Bukatzeko, San Juanak direnez, eta jaietan adituak diren halako lagunekin gaudela aprobetxatzen, herriko jaien gainean galdetu diegu. Zera erantzun digute: "Badaude leku batzuek jaiak bereziak direnak: San Fermínak... Dena dela, Arrasateko eta inguruko herri gehienetako jaiak ez dira txarrak. Hori bai, txarrak edo onak izateko zer behar da? Bada gure ustez, jendeak parte hartzea; Udalak gura duena ekarri dezake, baina jai ona izateko, kaleko jai izan behar du eta jendeak parte hartu behar du".



SAN JIAK 2004 GOIENA TELEBISTAN

Arrasaten bertan egotea bezala

SAN JUAN JIAK 2004

Ekainak 29
Saio berezia.
21:15 eta 23:15ean

Ekainak 30
Saio berezia.
15:00etan

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Denda txiki askoren bideari segituta itxi egingo dute Beatriz Oinetakoak

UBANE MADERA

Datorren ekainaren 30ean Beatriz Oinetakoak dendak ateak itxiko ditu. 58 urtean jardun du zapatak eta bestelakoak saltzen Erdiko Kalean. Ez da itxiko duten saltoki bakarra. Azkenaldian, denda txiki dezente ixten dabilta Arrasateko alde zaharrean.

1946ko Santa Luzia egunean (abendua 13an) zabaldu zuen denda Beatriz Etxebarria Altunak. Laster, 1951n, gaixotasunak eraginda, haren alabek (Mertxe eta Esther Trojaolak) hartu zuten dendaren ardura. Eta gaur arte, hantxe jardun dute, beharrean.

Lehen esandako moduan, ekainaren 30ean itxiko dute Beatriz Oinetakoak denda. Eta ez da bakarra izango. Azken urteotan geroago eta joera handiagoa dago herrien erdialdean —jakina, baita Arrasaten ere— dauden denda txiki asko ixteko; gehienbat, oso lan zaila delako saltoki handiekin lehiatzea. Hain zuzen ere, Ibai Arte elkarte hori saihesteko lanean dabil azken urteotan.

Edozelan ere, joera horren gainean eta bestelako kontuen gainean berba egiteko Beatriz Oinetakoetara joan gara, itxi aurretik.

GAUZAK ALDATUTA

Horrenbeste urtean denda batean lanean egonda, eurek sumatu dituzten aldaketa nagusien gainean galdetu diegu, adibidez. Jakina, zapata saltzaile izanda, modaren gainean berba egin digute: "Ni hasi nintzen 51n eta orduan moda ez zen orain bezalakoa. Orduan ere bazen moda, baiña, oraingoak koloreak, takoi motak, mutur luzeak... zaintzen ditu. Bezeroen artean ere alde handia dago, orain 15 urtetik hona. Lehen bezeroen artean, fideltasun handiagoa zegoen. Orain ere bai, baiña batez ere, pertsona helduago-



Mertxe Trojaola, Beatriz Etxebarria eta Esther Trojaola, Beatriz Oinetakoak dendan.

ekin. Adibidez, batzuek esaten digute: eta orain nora noa? Dena dela, alde handia dago. Gizartea bera da desberdina".

AURRERA ATERATZEA, LAN ZAILA

Beatrizek eta Estherrek penaz utziko dute denda, bereziki, ondorengoek ez dutelako hartu gura: "Sei seme-alaba ditugu eta ez dute entzun ere gura". Hain zuzen ere, hori da denda txiki askorekin gertatzen dabilena. "Egia da oso lotua dela. Gure seme-alabek zera diote: 'Zapatuetan eta bestelakoetan lan egin behar duzue: Gabonetan, Aste Santuetan...'"

Horrez gainera, bestelako zailtasunen gainean ere berba egin digu Mertxek: "Gu azoketara joan izan gara beti, eta orain eskaintza hain da handia, askotan ez daki-

zu ezta nondik hasi ere".

Dena dela, Erdiko Kaleko lokala aurrerantzean ez dugu hutsik ikusiko. Izan ere, ondorengoei ez bada ere, Trojaolatarrek lortu dute beste norbaitek denda leku berean ipintzea. Ordiziatik etorriko da gaur egun geroago eta hedatuago dagoen formula erabiltzen duen dendaria: produktu bereko denda bat baino gehiago zabaltzea hainbat herritan.

Bukatzeke, zapatak erosteko orduan gomendio bat eman digu Mertxe Trojaolak: "Moda baino orkoiak (hormak) dira garrantzitsuagoak. Garrantzitsua da orkoi onak zeintzuk diren jakitea. Hankak gustura izatea".

Gomendio hori eman ostean, bezeroei eskerrak emanda agurtu gura dute Trojaolatarrek.

Olio isurketa egon arren, ez dute beste biltegirik aurkitu

U.M.

Zerrajerako lurretatik Deba ibaira isurketa txiki bat egon da egunotan. Hasieran, fuel-oliadun beste biltegi bat agertu dela pentsatu zuten arren, astelehenean ziurtatu ahal izan zuten ez zela hala.

Susto handia hartu zuten Udaleko Ingurumen Sailekoek Zerrajeratik ibaira olio isurketa zegoela jakin zutenean. Hain zuzen ere, hiltegi zaharraren inguruan egon da egunotan isurketa. Hori dela eta, fuel-oliadun beste biltegi bat agertu dela uste izan zuten hasieran Udalekoek. Hala, Iho-bekoei deitu zieten Zerrajerako lurra zulatu eta egoeraren berri jakiteko.

ZULATU ETA ESTALI


Astelehenean etorri ziren Iho-bekoeak Zerrajerara. Goizean egin zuten zuloa, torloju fabrika zaharraren ondoan. Eta arratsaldean bertan estali zuten berriz.

Izan ere, azkenean ez dute fuel oliadun biltegirik aurkitu bertan. Ingurumen Saileko teknikari Rafa Ugartek argitu digunez, torloju fabrika zaharraren hoditeriatik etorri zen isurketa.

Izan ere, hoditeriaren paretak zikin daude, eta azkenaldian botatuko euriek mugitu egin dute zikinkeria hori. Horrengatik izan da ibaira isurketa. Ingurumen Saileko teknikariak gaineratu digu hoditeria garbitzea oso zaila dela, lurpean bi metrora dagoelako eta ez duela kutxatilarik. Hala, hoditeria garbitzeko tresneria egokirik ez izanda, garbitzen hasiz gero kalte gehiago sortuko dituztela. Argitu digu kasu horretan irtenbiderik zuzenena lurrak garbitzea dela; hau da, lurrak handik hartu eta beste norabait eramanean. Edozelan ere, lan hori inguru hura urbanizatzeko lanean batera egingo dutela adierazi digu.

BESTE BILTEGI BAT, TORLOJU FABRIKAN

Bestalde, Zerrajeran lurperatuta dauden fuel oliadun biltegien gainean, Rafa Ugarte teknikariak adierazi digu beste biltegi bat badagoela han inguruan; hain zuzen ere, torloju fabrika zaharraren barruan dago. Edozelan ere, biltegi horren berri badute eta gainera egoera onean dagoela adierazi digute, beraz, horrekin, behintzat, ez dute ezustekorik espero.



Astelehenean egin zuten zuloa Iho-bekoeak biltegirik bazen edo ez ikusteko.




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Arrasateko
euskalgintza

Ohiko batzarra egin zuten Euskalgintzaren Mahaiak

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Euskalgintzaren Mahaiak urtean egiten dituen ohiko bi batzarretako bat egin berri du oraingo hilean. Besteak beste, lantaldeen jarraipena egin zuten eta lehenengo sei hilekoaren balorazioa.

Euskalgintzaren Mahaian, Euskalgintzaren barruan dauden 13 erakundeetako ordezkari bana elkartzeko dira. Lehen esandako moduan, urtean zehar ohiko bi batzar egiten dituzte: bata ekainean izaten da. Batzar horretan, lantaldeen jarraipena eta lehenengo sei hilekoaren balorazioa egin ohi dute. Eta bestea abenduan izaten da. Kasu horretan, urtearen balorazioa egiten dute eta hurrengo urteko ekintza plana adosten dute.

Beraz, orain egin berri duten batzar horretan, lanean ibili diren lantaldeen deskarguak jaso dituzte batetik eta bestetik, ekarpenak egin dituzte parte hartu duten erakundeetako ordezkariak.

Hala, eta lehen esan dugun moduan, urteko aurreneko sei hilekoan, 13 lantalde ibili dira lanean Euskalgintzaren Mahaian. Hainbat helburu eta egitasmo oinarri hartuta jardun dute lanean. Hain zuzen, batez ere, honako gaiak landu dituzte: helduen euskaldun-zea eta alfabetatzea; euskara-

ren transmisioa; Euskalgintza bera: talde bezala gorpuzteko komunikazioa; euskararen prestigioa; euskaldunok ditugun eskubideak; ikastetxeetako motibazio saioak eta herrira begira egin beharreko plana, hain zuzen ere.

Esan beharra dago, era berean, 13 lantalde horietatik 12k jarraituko dutela aurrerantzean lanean, lantalde batek bere lana bukatu du-eta, datorren urtera arte.

Bestelakoan artean, datorren irailetik aurrera beste lantalde bat abiarazi edo ez aztertuko du orain Euskalgintzako Jarraipen batzordeak; izan ere, herriko euskarazko kultura eskaintzaren gaineko kezka du Euskalgintzak. Hori horrela, kultura eskaintza aztertu, optimizatu eta jendearen parte-hartzea areagotzeko bideak landu nahi ditu aurrera begira. Eta hori guztiori bideratu ahal izateko lantaldea sortu nahi du Arrasateko Euskalgintzak herriko gainerako kultura eragileekin batera.

GREBA/ Lan hitzarmena negoziatzeko geldiekin egiten dabilta

Datorren astean ere egingo dute lanuztea udaletxean

UBANE MADERA

Oraingo asteko martitzenean hiru orduko lanuztea egin zuten udaletxeko langileek, eta datorren martitzenean ere hala egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. Hortaz, Udaleko zerbitzuren bat erabili behar izanez gero, 13:00etatik 14:00ak bitartean egin behar.

Protestan segitzen dute Arrasateko udaletxeko langile gehienek. Egoera berean daude inguruko bestelako udaletxeetan ere. Guztiek ere, lan hitzarmena negoziatzea eskatzen dute.

Kontuak kontu, hori eskatze-ko, hiru orduko lanuzteak egiten dabilta azken asteotan Arrasateko udaletxeko langile gehienak. Martitzenetan egiten dituzte, 10:00etatik 13:00ak arte. Oraingo astean ere hala egin dute. Besteak beste, protesta indartzeko, udal ibilgailu gehienak (garabia, kamioia...) Herriko Plazan eta kalez kale ibili ziren bozina-ekin zarata ateratzen.

Aurrera begira, berriz, Arrasaten, datorren asteleheneko oso-



Oraingo-astean, udal ibilgailuak erabili dituzte protesta indartzeko.

ko batzarrean gai hori landuko dute. Izan ere, CCOO sindikatuak eta Eudelek lan hitzarmenaren gaineko akordioa lortu dute. Baina gainerako sindikatu eta langileak (gehienak, Arrasatekoak barne) ez daude ados akordio horrekin, eta dagoeneko iragarri dute hurrengo martitzenean,

hilak 29, lanuztea egingo dutela. Hortaz, adi ibili; izan ere, egun horretan bakarrik 13:00etatik 14:00ak arte ibiliko dira herritarrei arreta ematen. Kontua da orain arte, behintzat, herritar askok jo duela udaletxera lanuztearen tartean, eta horrek eragozpenak sortu dizkie askori.

Arrasate eta mitologia oinarri duen film laburra aurkeztuta

U.M.

Arbasoen argi iraunkorra film laburra aurkeztu berri dute. Arrate Fernandez gazte ando-aindarrak zuzendutako filma da, baina Arrasate eta Arrasateko gaiak ditu oinarri. Film hori inguruko herri eta ikastetxeetara zabaltzea da asmoa.

Ume batzuek kontatutako istorioa jasotzen du *Arbasoen argi iraunkorra* filmak. Esan bezala, Arrasateko inguruak azaltzen dira. Adibidez, Santa Barbara da horietako bat, eta hango heren-

sugearen kondaira jaso du; baita Sugaar eta Marirena ere. Azken baten, Natura, euskal kultura, mitologia eta abentura uztartzen ditu Arrate Fernandezek filmak.

Urtebetean ibili dira 33 minutuko film labur hori egiten. 100 bat pertsonako lagun taldeak jardun du lanean eta zazpi mila euro pasatxoko aurrekontua izan du. Arrate Fernandez zuzendariaren esanetan, Euskal Herrian zirkuitu independenteekin lan egingo dute filma erakusteko, eta horrez gainera, helburua da inguruko herrietara eta ikastetxeetara ere zabaltzea.



LABUR

Ur-biltegi-tako ekaitzen sistema berri egingo dute

Azkenaldian, ekaitzak daudenean, zenbait baserri auzotan ur eta argindar barik geratu izan dira, oinaztuen eraginez; bereziki, Udalatx inguruan, oinaztu asko erakartzen dituzte eta Arrasateko mendi horrek. Hala, hori konpontze aldera, oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrek erabaki du ur-biltegi-tako ekaitzen aurkako sistema berri-zea. Hain zuzen ere, Benerasen, Galarran eta Udalan egingo dituzte lanok.

Permutatu bariko panteoietako gorpuzkien gainean

Udaleko Zerbitzu Saitetik zera jakinarazi digute: 2004ko urriaren 1etik aurrera Aldai hilerrian permutatu barik dauden panteoietan lurperatu ziren hildakoen gorpuzkiak aterako dituela Arrasateko Udalak. Hala, panteoietatik atera behar diren gorpuzki horiekin zer egin behar den esan behar zaio Udalarari irailaren 15erako. Hala egin ezean, Arrasateko San Kristobal hilerriko guztien hezurtegia utziko dituzte.

Badakitzu mediku euskaldune eukiteteo eskubidie daukotezule?

Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!
ALDARRIKATU ETA SALATU

www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

EUSKARAREN
TELEFONOA 902 194 332

Eztabaida eta protesta artean, jaiek aurrera egin dute, eguraldia lagun dutela

ARRASATE PRESS

San Juanak hasi dira, eta hasiera baten jaiek lagun izan du eguraldia. Hainbat herritarrek Udalarekin duten haserrea aditzera eman dute, Salbean eta San Juan suan. Herritarrak jaian gogoz murgilduta daude, eta oraindik asteburua falta da.


Aurretik hainbat ekitaldi egin zituzten arren, eguaztenean hasi ziren jaiek. 15:30ean, txistulariek diana jo zuten, eta 16:00etan, bomba japoniarrak bota zituzten. 17:00etan, txosna-guneko bozgorailuetatik musika entzuten hasi zenean, hasiera eman zieten jaie-tako bi egitarauai.

Umeak eta gaztetxoak izan ziren lehenengo protagonistak. *Circo Discolo* ikuskizunarekin ume mordoa batu zen Herriko Plazan. Horren ostean, Seber Altuben, Sexologia Zerbitzuak antolatutako adierazpen sentzualen erakusketa egin zuten. Munduko dantzen erakustaldiak lagun asko erakarri zituen.

SALBEAN, PROTESTAK

Urtero moduan, alkateak eta zinegotziek udaletxetik San Juan Bautista elizara jo zuten, Salbera. Azken urteotan, ekitaldi hori udal taldeari protesta egiteko baliatu dute, eta hala egin dute aurten ere bai. Hainbat lagunek —mordoxka batek— txistu egin zieten agintariei eta pankartekin eliza ateraino jarraitu zieten.

Errementari Dantzaren ikuskizunak herritarrak liluratu zituen, eta ibilaldia egin ostean, suarekin bat egin zuen Herriko Plazan. Dantzariak plazatik irten bezain laster, ehun bat lagunek hainbat irudi (epaitegia, telebista, Alderdien Legea...) erre zituzten. Jendeak ondo hartu zituen.



Umeak aho zabalik geratu ziren munduko zirku txikiarekin.



Adierazpen sentzualen erakusketan dantzak izan ziren protagonista.



Txosna-guneko taldeek hainbat irudi egin zituzten, gero sutara botatzeko.



Beste behin, Errementari Dantza izan zen gaueko ikuskizun hunkigarriena.




Salbean, txistu eta txalo artean sartu zuten San Juanen irudia parrokiara.



Aurten, eguraldia lagun izan dute danborradan esku hartu duten mondragoetarrek.



Txosna-guneko taldeek kartoizko hainbat irudi bota zituzten sutara; irudiok urteko gauza txarrenak adierazten zituzten.



Lau eta Ozen taldeak izan ziren eguaztenean txosna-gunera girotzen.



Zezen-plazara hurbildu ziren herritarrek gogotik egin zuten barre, batek baino gehiagok ikuskizun ederra eskaini zuen-eta.



Zezenak agertu aurretik gazte bat baino gehiago lurrean zen.

ARETXABALETAN RESIDENCIAL BEROA



Orain aukeratu
egin dezakegu!

- Duplexak terrazekin
- Atikoak terrazekin
- Logela bateko eta bi logelako apartamentuak
- Hiru eta lau logelako etxebizitzak

Informa zaitez Aretxabaletako gure
bulegoan (obra aurrean)
Belorrieta auzoa 13. Tel. 943 711 770

KULTURA ONDAREA/ Euskal kultura sustatzeko elkarteak

Portaloi elkarteak, euskal kulturaren gaineko interesa duen herritar taldea

IKER BARANDIARAN

Euskal kulturaren gaineko interesa duen herritar talde batek Portaloi elkarteak sortu zuen, urte hasieran. Hasiera baten, euskal kantuak berreskuratzeari ekin diote, eta dagoeneko, Mondragon Hotelean eta Herriko Plazan kantuan ibili dira.

Joan den urtearen bukaeran, herrian hainbat esparrutan lan egiten duten zenbait lagunek bat egin zuten. Elkartek euskal kulturari bere ekarpena egin gura dio. Jakin badakite herrian hainbat elkarte daudela, baina horiei lagunduta, horiekin eta Udalarekin batera, herrian ekimen gehiago egin gura dituzte.

ABESTEKO OHITURA BERRESKURATU

Aurten, urtarrilean, hainbat lagunek Portaloi elkarteak eratu dute. Ez dute talde espezializaturik egin, kasuan kasuko alorretan lan egin gura dute, dauden premien arabera.

Taldeak jarri duen lehenengo helburua da aspaldiko kantuak berreskuratzea, eta ohitura hori indartzea. Elkarteko kideek diote gaztaroan sarri abesten zutela mendian, bazkalosteetan, kalean... Gaur egun horren hutsunea ikusten dute. Ez dute uste kantuak galdu direnik, ahaztu baizik. Galdu dena da abesteko ohitura. Ohitura hori berres-



75 bat lagun ibili ziren kantuan Portaloi elkarteak Mondragon Hotelean egindako ekimenean.

kuratzeko, Mondragon Hotelean jardunaldi batzuk egin dituzte Donostiako Itziar Zamora kantu irakaslearekin. Hainbat herritarrek kantatzeko aukera izan zuten lau egunean, eta abestien erritmoa, markatu beharreko puntuak eta beste hainbat gauza ikasi zituzten. Guztira, 75 lagu-

nek abestu zuten (30 bat lagunek saio bakoitzean).

Horrez gain, atzo, eguna, Portaloi elkarteak Dragoi Janaren afalostea alaitu zuen Herriko Plazan, antolatzaileek hala eskatuta. Horretarako, hamar bat kantu aukeratu zituzten eta plaza guztia kantuan jartzeko asmoa

zuten. "Kantu ezagunak eta alaiak aukeratu ditugu, arrasatearrek gustura abestuko dituztenak; aspaldikoak eta baita gaur egungoak ere: adibidez, *Egixa da, Bermioko portua, San Juan, Egun da Santimamiñe, Topa Dagigun...*", kontatu zigun Portaloi elkarteeko kide Salva Dalmauk.

Elkarteak sortu zutenean, jakin zuten hainbat herritan abesteko ohitura berreskuratzen zebiltzala, eta Donostiako esperientzia ezagutu zuten. Horregatik, Arrasaten horren saiakera gitea erabaki zuten. Uda ostean ere herrian jarraituko dutela aditzera eman digute.

BEREZKO IZAERA DUTEN EKIMENAK

Portaloi elkarteak ibilbide motza egin du orain arte. Mondragon Hotelean egin zituen hainbat kantaldi, eta atzo Dragoi Janean hainbat herritar kantuan ipini zituen; besterik ez.

Elkarteko kideen esanetan, etorkizunari begira eta hiriburuarekin alderatuz, Arrasaten dagoen kultura eskaintza eguneratu beharra dago, bestela herriko etorkizuneko kultur giroa beltz ikusten dute.

Are gehiago, haien ustetan, autobideak neurri baten herriari kalte egingo dion arren, onura ere egin diezaiotke. "Arrasatetik hiriburuetara joateko denbora gutxiago beharko da eta, ondorioz, arrasatearrak gehiago irtengo dira. Baina hemen, Arrasaten, berezko izaera duten ekintzak egiten baditugu, hirietako lagunak erakar ditzakegu", ondorioztatu zuten.

Giltza elkarlanean ikusten dute. Euren ustetan, herriko elkarteek eta Udalak bat egin behar dute eta irudimena erabili, helburu hori lortzeko.

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu



Merkataritza non, bizitza han

eguzkitako betaurreko graduatuak

65 €

bonardi

mugitzea gustatzen zaidalako

MULTIOPTICAS

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

Eslenza Bonardi amezuzendako + lente monokolorak irteerarik
murriztuak eta irteerarik ez dituztenak +5 est. +2 zit.
Baita, 04/06/01 - 04/07/01.

R.S. Nº 164/99 I.L.G.

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA



ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEAK

Norgehiagoka amaitu eta gero, finalean zein baino zein gehiago izan ziren bi taldeei batera ateratzen argazkia.

Saukelu Scream izan da Zaldibarko Futbito Txapelketako talde onena

XABIER URZELAI

Saukelu Scream taldea da aurtengo Zaldibarko Futbito Txapelketako irabazlea. Saukelu Screamek eta Driblingek jokatu zuten finala, eta Saukeluk irabazi zuen 4-1. Finala tentsio handiko partidua izan zen, baina jokalariek garbi jokatu zuten.

Finalean erakutsi zuten moduan, Saukelu Screameko jokalariek izan dira aurten maila onena era-

kutsi dutenak. Eta joko azkarra eginez eskuratu dute txapelketa. Seguruenik, ez dute talde zintzoenaren saria jasoko, baina inork ezin izango du esan Zaldibarko pilotalekuan jokatu duten bakoitzean zeukaten guztia eman ez dutenik. Finalean, Saukeluk hiru goleko aldearekin irabazi zion Dribling taldeari, eta tentsio handia izan bazen ere, ez zen emoziorik izan, Saukelu erraz nagusitu zen-eta. Saukeluko Egoitz Apraiz izan zen finaleko jokalaria onena, eta ez zen ezustekoa izan,

Zigorrolakoak txapelketa osoan erakutsi du-eta maila ona. Horrez gain, baina, aipatzekoa da bi taldeetako atezainek, Gorka Madinak eta Oscar Sanchezek, egin zuten lana, eurek egin zuten-eta finala ikusgarri. Aipatzekoa, baita ere, epailearen lana.

Hirugarren eta laugarren postuei dagokienez, Lasagabaster taldeak 5-2 irabazi zion You Know taldeari. Norgehiagokaren ondoren, finalistek antolatzaileekin batera afaldu eta txapelketa behar den moduan amaitu zuten.

MENDI LASTERKETA

Isa Casado hirugarrena izan da Katalunian korritu den Espainiako Txapelketan

Isa Casado mondragoetarra hirugarren postuan helmugaratu zen domekan, Gironako Pirinioetan korritu duten Espainiako Txapelketan. Emakumeetan lehenengo sailkatua Yolanda Santiuste izan zen, eta Roser Español izan zen bigarrena. Hirugarren postuagatik lehian, Queralbs-ko kale estuetan zehar Isa Casadok eta Marta Busquets kataluniarrak esprint ikusgarria egin zuten, eta arrasatearra nagusitu zen segundo bateko aldearekin.

BESAIDE MENDI ELKARTEA

Gipuzkoako Birako hurrengo etaparako izenemate epea zabalik dago

Gipuzkoako Birako beste etapa bat egingo dute Besaidekoek uztailearen 4an. Etapa horretan, Debatik Zumaiarako ibilbidea egingo dute. Ibilbidea lau ordu inguruko da; irteera 07:00etan egingo dute Garibain, eta 13:30ak aldera itzuliko dira. Izena eman gura duenak ekainaren 28an, 29an, 30ean eta uztailearen 1ean izango du hurretarako aukera, 19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan.

ATLETISMOA

Arrasate Atletiko Taldea hirugarren sailkatu zen Gipuzkoako Taldekako Txapelketan

Arrasateko atletek Gipuzkoako Taldekako Txapelketan hartu zuten esku, eta mondragoetarrek lan ona egin zuten, hirugarren postuan sailkatu ziren-eta, 86,5 puntu eskuratuta. Txapelketan hainbat proba izan ziren: lasterketak, pisu jaurtiketak, jauziak... Txapelketako onena Real Sociedad taldea izan zen. Donostiarrak 136 puntu eskuratu zituzten, eta Txindoki-Ordizia izan zen bigarrena 96 punturekin. Arrasateren atzetik geratu ziren Tolosa, Errenteria eta Atletiko San Sebastian taldeak, besteak beste. Bestalde, pertika jauziari dagokionez, Jonathan Perez Valladoliden izango da domekan, eta Lander Errasti Gijonen lehiatuko da.

Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzuz s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51

AUTO LASTERKETAK

"Autoa etxera osorik ekartzea lasterketa irabaztea baino garrantzitsuagoa da"

Igor Orobengoak eta Iñigo Saizarrek urte eta erdi daramate igoeretan, rallyetan eta rallysprintetan parte hartzen

XABIER URZELAI

Aramaioko Rallysprinterako elkartu ginen Igorrek eta Iñigorekin, baina argazkiak egin behar genituenean sekulako euri zaparrada bota zuen, eta atzeratu egin behar izan genuen guztia. Astelehenean izan ginen eurekin, auto lasterketen gainean berbetan.

Berbetan hasi aurretik, baina, argazkiak egiteko aprobetxatu dugu, euria botatzeko ez du-eta askorik behar. Horretarako, baina, autoa gordelekutik Garagartzako plazara atera behar: "Handia da ba! Lasterketetako auto bat izan eta bultzaka ibili behar", dio Igorrek barrezka. Igorrek esan bezala, autoa bultzaka atera dugu plazara, hainbat konponketa egiten dabilta eta pieza batzuk falta dituenek, ezin martxan jarri.

Kasualitatez, Garagartzako plazan igoeretarako prestatuta dagoen beste auto bat dago, Aramaioko Haritz Errastiren eta Ander Oionen Citroën AX Sport autoa. Aurrealdea apurtuta dauka, Aramaioko Rallysprintean hartutako kolpeengatik: "Lehenengo txanda oso ona egin zuten, eurak izan ziren azkarrenak", dio Iñigok: "Baina bigarren txandan kolpea hartu eta epaileek ez zieten utzi hirugarren txandan esku hartzen. Guk ez dugu horrenbeste arriskatzeko, horrelako kolpe bat hartuz gero autoa konpontzea oso garestia da-eta. Ondo pasatzeko, disfrutatzen eta ahalik eta gehien ikasteko hasi ginen lasterketetan parte hartzen, eta argi daukagu non dagoen gure muga". Igorrek ere argi dauka hori, baina momentu horretan beste gauza bat dauka buruan: "Citroën AX horrek geure autoa baino askoz azkarragoa izan behar du; egunen baten probatzen uzteko eskatu behar diet aramaioarrei".

PAUSOZ PAUSO

Argazkiak atera eta gero, autoa gordelekuan sartu eta baserrian sartu gara lasterketen gainean berba egiteko. Auto lasterketetan parte hartzen nola hasi ziren galdetuta, Igor hasi da berbetan: "Orain dela urte batzuk Bartzelonara joan ginen neskalagunekin batera hango rallya ikustera, eta hurrengo urtean biok bakarrik joan ginen. Eta, han hartutako beroaldiarekin hasi zen guztia". Iñigok jarraitu du berbetan: "Auto bila hasi ginen, eta Igorrek aurkitu zuen orain daukagun Opel Corsa GSI-a. Autoa erostea, baina, ez zen nahikoa, lasterketetan esku hartzeko prestatu barik zegoen-eta. Hala, eserlekuak jarri, barrak ipini, trajeak eta kaskoak erosi... Diru apur bat gastatu



XABIER URZELAI

Auto barruan dagoena da Igor Orobengo, eta autoaren aurrealdean eserita dagoena Iñigo Saizar.

"Ez daukagu inongo babeslerik eta konponketa gehienak guk egiten ditugu"

genuen. Baina hor ez da dena amaitzen: gurrupilak, mantenturako piezak...". Autoa erdibana erosi zuten Igorrek eta Iñigok. Normalean, Igorrek gidatzen du, eta Iñigo ibiltzen da kopilotu lanetan: "Diru gehien Igorrek gastatzen du. Nik urtean hiru edo lau lasterketa aukeratzen ditut, eta gainon-

"Lasterketa irabaziz gero 100 euro ematen dituzte; 150 ordaindu behar dira izena emateko"

tzear kopilotu moduan ibiltzen naiz. Oso gustura joaten naiz Igorrek, gidari ona da, autoa zakarkeria barik gidatzen du. Hori bai, kopilotu moduan Igorrek ez du askorik balio, urduri jartzen da-eta". Eta Igor ados dago horrekin: "Arrazoi du Iñigok, kopilotu joaten naizenean urduriegi egoten

"Gallastegi Motor Sport-ekoak oso ondo portatu dira gurekin, eta asko erakutsi digute"

naiz, eta ez Iñigok gaizki gidatzen duelako; nire arazoa da, lasterketan baino gehiago autoan izaten dut burua". Hori dela-eta, Iñigok gidatuko duen hurrengo lasterketan Igor beharrezko seguruenik anaia, Iker Orobengo, ibiliko da kopilotu lanetan. Eta, Ikerrek barre egin du.

Autoa konpontzeko edo mantentze lanak egiteko gehienetan eurak ibiltzen dira lanean; hori esan digu Igorrek: "Auto lasterketetan parte hartzea bezain beste atsegin dut mekaniko lanetan ibiltzea. Gainera, anaiak asko laguntzen digu, baita aitak ere. Tailertxo moduko bat daukagu baserriaren atzealdean, eta hor ibiltzen gara hemendik kendu eta handik ipini, horrela ikasten da-eta. Gainera, ez daukagu aurrekonturik autoak zerbait daukan bakoitzean tailerrera eramateko".

DIRULAGUNTZA BARIK

Diru kontuen gainean berbetan hasita, babesleen gainean galdetu diegu: "Ahalegindu ginen babesleren bat edo beste bilatzen, baina jendea ez dago gertu dirua emateko. Eta, gu ere ez gara eskatzen ibiltzen diren horietakoak. Eskerrak eman gura diegu, baina, Ibabe garajekoei eta Gallastegi Motor Sport-ekoei, asko laguntzen digute-eta. Egia esan, oraindik ez dakigu Gallastegikoek zelan jasaten gaituzten, ia egunero joaten gara-eta galderak egin eta lana ematera. Oso ondo portatu dira gurekin, eta gauza asko ikasi dugu eurekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik".

Hortik aurrera, baina, bikote arrasatear horrek ez du inongo laguntzarik jaso: "Gutxienez, lasterketetako izenematea ordainduta izango bagenu...", dio Igorrek: "Lasterketa batean izena emateko 150 euro ordaindu behar dira, eta lasterketa irabaziz gero saria 100 euro izaten da. Horregatik diogu behar dena baino gehiago arriskatuz gero auto lasterketetan asko dagoela galtzeko, eta gutxi irabazteko. Guk argi daukagu lasterketa irabaztea baino garrantzitsuagoa dela etxera autoa osorik ekartzea".

Denboraldi erdia baino ez dute egin, eta oraindik lasterketa asko dituzte aurretik. Lasterketaren baten Opel Corsa GSI gorria ikusiz gero animatu beldur barik, Igor eta Iñigo dira-eta.

Istripu handiena, lasterketetatik kanpo

Auto lasterketen gainean berba egiterakoan derrigorrezkoa da auto istripu larriarik izan ote duten galdetzea. Igorrek erantzun digu: "Lasterketan auto istripu bakarra izan dugu, Azpeitian. Eta bion errua izan zen. Lasterketa amaitzeko bi bihurgune geratzen ziren, eta Iñigok gaizki eman zizkidan datuak. Gainera, ni ez nintzen bihurgunera behar den moduan sartu, eta publikoa korrika ikusi nuenean konturatu nintzen

zerbait gaizki zihoala. Atzealdetik joan zitzaidan autoa, eta bazter baten kontra jo genuen. Lasterketa amaitu genuen, baina autoaren atzealdea apurtuta geneukan, eta ezin jarraitu". Auto istripu larriena, baina, errepidean izan zuten: "Jaizkibelen izan ginen larunbat gauean autoak nola igotzen ziren ikusten. Handik itzultzen genbiltzala ikusi genuen auto batzuek auto istripua izan zutela, eta oraindik errepide erdian

zeudela. Ez nuen denborarik izan; lehenengo errepide erdian zegoen pertsona bat saihestu nuen, eta gero auto bat. Bigarren autoari, baina, bete-betean eman genion. Ni berehala atera nintzen, baina Iñigo auto barruan geratu zen, irten ezinda. Autotik irteten lagundu, eta errepide bazterreko hesiaren atzean jarri ginen. Nire autoa nola zegoen ikusita zera esan nion Iñigori: badaukagu lasterketetarako auto berria".

E, TXO!

**ZAHAR BERRIK ERAGILE
BAT BEHAR DU**

Zahar Berrik, euskaldun berriei euskara praktikatzen eraztasunak ematen dizkien taldeak, eragile bat behar du lau orduko lana egiteko.

Derrigorrezkoa izango da euskara maila ona izatea, jendearekin harremanak egiteko eraztasuna izatea eta herrikoa edo ingurukoa izatea. Bidali curriculum AEDra, uztailaren 17a aurretik (Pablo Uranga 4, behe).

**KONTZERTU IKUSGARRIA
GAZTETXEAN**

Bihar, zapatua, Angerrek eta Kuraiak kontzertua egingo dute gaztetxean, 22:30ean.

**TXATXILIPURDIKO
UDALEKUAK HASTEAREN**

Txatxilipurdiren udalekuak hastear daude. Udaleku itxiei dagokienez, ekainaren 28an joango da gaztetxoan lehenengo txanda Beintzara. Orioren ekainaren 30ean joango dira, eta Kantabriara uztailaren 1ean. Horrez gain, udaleku irekiak, Arrasatekoak, uztailaren 2an hasiko dira.

**UDALEKUETAN IZENA
EMATEKO ERRAZTASUNAK**

Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Txatxilipurdik erabaki dute egoera ekonomiko zaila dutela egiazta dezaketen familiei Txatxilipurdiren uztailaren udalekuak doan eskaintzea.

**BEGIRALE IKASTAROA
TXATXILIPURDIN**

Txatxilipurdik begirale ikastaroa antolatu du. Urriatik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea edo 2005ean betetzea. Interesatuak 300 euro eta aterpetzeko gastuak ordaindu beharko dituzte.

GUREGAIK/ DANTZA IKASTAROA

Uztailaren 9tik 19ra gaur egungo dantza ikastaroa egingo dute

IKER BARANDIARAN

Uztailaren 9tik 19ra Udaleko Gazte Sailak gaur egungo dantza ikastaroa egingo du. Arrasateko Musika Eskolan egingo dute, eta irakaslea Saioa Ibañez arrasatearra izango da.

Saioa Ibañez dantzari arrasatearra udan Arrasatera bueltatuko dela aprobetxatuta, Udaleko Gazte Sailak gaur egungo dantza ikastaroa antolatu du. Uztailaren 9tik 19ra egingo dute, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, 20:15etik 20:45era, hain zuzen ere.

Ikastaro hori Arrasateko Musika Eskolan egingo dute, eta izena eman gura dutenek 20 euroko matrikula ordaindu beharko

Ibañez eskarmentu handiko dantzaria da, eta beste urte batzuetan ere eman ditu eskolak

dute. Ikasleek eta langabeek, berriz, 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Ibañez oso gaztetan hasi zen dantza ikasten, eta asmo horrekin Bartzelonara jo zuen. Horren ostean, hainbat urte Amsterdamen igaro zituen. Tarteka, zenbait urtean, udan dantza ikasta-



Saioa Ibañez arrasatearra eskola handiko dantzaria da.

roak eman izan ditu Arrasaten. Hainbat ikuskizunetan esku hartu du, eta 2002an *Ihes puntuak*

ikuskizun propioarekin hainbat emanaldi egin zituen. Gaur egun ere hainbat proiektutan dabil.

GUREGAIK/ MUNDUKO GAZTEEN TOPAKETA

Munduko Gazteen Topaketan esku hartzeko dirulaguntzak daude

I.B.

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak dirulaguntzak emango ditu Bartzelonara Munduko Gazteen Topaketara joateko. Topaketa hori abuztuaren 8tik 14ra egingo dute, Bartzelonako Forumean.

Abuztuaren 8tik 14ra bitartean, Munduko Gazteen Topaketa egingo dute Bartzelonako Forumean. Mundu osoko 18 eta 30 urte arteko gazteak joango dira topaketa horretan esku hartzera.

Horren harira, Arrasateko Udalak gonbita egin die herriko gazteei hara joateko, eta eskaera egiten duen gazte bakoitzari 50 euroko dirulaguntza emango dio.

Egonaldiaren prezioa 200 euro da. Horren barne honako zerbitzuak eskainiko dituzte: ostalua kanpinean abuztuaren 6tik 16ra, egun guztietako gosari, bazkari eta afariak, eta Forum barruan eta kanpoan egingo diren ekintza guztiak ikusteko pasea, besteak beste.

Egonaldiaren prezioa 200 euro da, eta Udalak 50 euroko dirulaguntza eskaintzen du

Topaketa horretan 10.000 gazte esku hartzea aurreikusi dute, eta, besteak beste, honako gaiak jorratuko dituzte: globalizazioa, garapen iraunkorra, kultura aniztasuna, hezkuntza, lana, osasuna, berdintasuna, bakea, demokrazia eta partaidetza. Hain zuzen ere, antolatzaileen esanetan, topake-

Uztailaren 8tik 14ra mundu osoko hamar mila gazte batuko dira Bartzelonako Forumean

tak mendeko arazorik larrienen eztabaida-gune izan gura du.

10.000 GAZTEREN TOPALEKUA

Bartzelonako topaketak hainbat helburu izango ditu: gazteek gizar-tan duten parte-hartzea indartzea; gazteek eskualdean, estatuan eta nazioartean duten harremana hobetzea; justizia sozialaren aldeko aldarrikapenak egitea; gazteen eta erakundeen arteko harremanak bultzatzea, eta beste batzuk.

Jardunaldi horren muna autogestionatutako programa zabala da. Nazioarteko gazte elkarte askok hainbat mahai-inguru, berbaldi, tailer, kontzertu eta ikuskizun egingo dituzte egun horietan.

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ZAHARREN ETXETIK



ARRASATE PRESS

Zenbaitzuk uste dute zahartzaroan ezin dela sexualitatea gozatu. Oker daude.

Sexualitatea zahartzaroan izan zuten berbagai Abaroan eta Uribarrin

ARRASATE IRRATIA/IKER BARANDIARAN

Udaleko Sexologia Zerbitzuko Larraitz Arando eta Eva Ruiz de Eginok Arrasateko erretiratuen sexualitatearen gaineko ikerketa egiten ibili dira.

Horretarako, prentsan eta Interneten argitaratutako artikulak aukeratzen eta moldatzen ibili ziren. Hori egiten zebiltzala konturatu ziren garrantzitsuena zela erretiratuengana zuzenean jotzea eta eurei galdezte. Horregatik, herriko erretiratuen elkarte bi aukeratu zituzten, Abaroa eta Uribarrin, eta horietara jo zuten.

Lau galderaz osatutako inkesta prestatu zuten eta erretiratuekin elkartu ziren. Sexologia Zerbitzuko lagunek hainbat gai ipini zituzten mahai gainean. Hain zuzen ere, erretiratuen elkarteetan eta antolatzen dituzten bidaietan ligatzen ote duten; bestetik, zelako gizonzko edo emakumezkoak gustatzen zaizkien; hirugarrenik, gizonzko edo

emakumezko batekin bakarrik egotean, zer gurako luketen egin, dantzatu, musukatu, eskuetatik heldu edo beste zerbait; eta, azkenik, ea zer pentsatuko zuten inguruan bi emakumezko edo bi gizonzko musukatzen edo ukitzen ikusiko balituzte.

ZINE EMANALDIA ETA KAFE TERTULIA

Horrez gain, zine emanaldia egin zuten Uribarrin eta Abaroan, eta horren ostean, kafe tertulia. Aukeratutako filma *El hijo de la novia* izan zen. Lan argentinarra da eta ezkondu gura duten bi adindunen istorioa bitxia kontatzen du. Filmak oso kritika onak izan ditu,

eta zahartzaroko sexualitatearen gainean hausnarketa egiteko aproposa da.

Inkesta edo galdetegi horiek giltza ziren erretiratuei gaiaren gaineko berriketa emateko, eta haien iritziak hartzeko. Zerbitzuko kideek esandakoaren arabera, orokorrean oso harrera ona egin diete bi elkarteetan.

GIZONEZKOEK, LASAIAGO ERANTZUN

Arandok eta Ruiz de Eginok bi kontu nabarmendu dituzte. Bate-tik, Arrasateko kanpo jaiotako erretiratuek herrian jaiotakoek baino askoz lasaiago berba egin dutela gai horietaz. Horrez gain,

orokorrean emakumezkoek lotsa handiagoa dutela sexualitatearen gainean berba egiteko. Heziketaren errua dela ondorioztatu dute Sexologia Zerbitzuko kideek: "Emakume askok oso hezkuntza bortitza izan dute", azaldu zuten. Horrekin lotuta, harrituta gelditu dira hainbat alargun harro daudelako alargundu zirenetik ez dutelako gizonzkoekin dantzarik egin.

Batzuk isilik gelditzen ziren, edo besteen erantzuna entzun arte ez zuten iritzirik ematen.

Erretiratuek ez dute hain argi ikusten homosexualitatearen gaia. Orain dela gutxi arte hori bekatua zen, eta orain, bat-batean, leku guztietan horretaz berba egiten dute. Horregatik, zelabait galduta daude. Gehienek, emakumezkoek, batez ere, onartzen dutela diote, "baldin eta inori kalte egiten ez badiote", baina gurago dute familiarterik homosexuala ez izatea. Baina badira, baita ere, horren aurka daudenak, "naturaren kontra" dela argudiatuta.

Homosexualitatea onartzen hasi dira, baina gurago dute norberaren familian ez izatea

Emakumezkoek gizonzkoek baino lotsa handiagoa dute, hezkuntzaren erruz

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

EGUZKIGRAF
inprimategia
Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941
ARETXABAETA

ESKORIATZA

Tfno 714345



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

LABUR

Toki Argi elkarteak Valentziara bidaiara egingo du

Toki Argi elkarteak Valentziara bidaiara egingo du. Irailaren 15etik 22ra bitartean egingo dute. Interesatuek 360 euro ordaindu beharko dute. Horren barne egongo dira ostalua, bidaiak eta janaria. Besteak beste, Valentziako inguruak, Benidorm eta Alacant bisitatuko dituzte.

Toki Argi elkarteak Hondarribiara txangoa egingo du

Uztailaren 18an, Toki Argi elkarteak Hondarribiara txangoa egingo du. Goizean hondartzara joango dira, eta horren ostean, eguerdian, Berako jatetxe baten bazkalduko dute. Interesatuek 20 euro ordaindu beharko dute, eta izena eman beharko dute lehenbailehen.

Udalak lehiaketara atera du Toki Argiko ile apaindegia

Udalak lehiaketa publikora atera du Toki Argi erretiratuen elkarteko ile apaindegia. Urtebeterako ustiaketa izango da eta bost urtera arte berri-ahala izango da. Urteko lane-egun guztietan egin beharko dute lan, astelehenetik egubakoitzera, eta zapatuetan, goizez bakarrik.

Santa Marinako urteko bazkarirako izenematea zabalik

Uztail erdialdean Santa Marinako jaiak egingo dituzte auzo horretan. Dagoeneko hasi dira jai egitaraua antolatzen. Besteak beste, urtero moduan, auzoko erretiratuendako bazkaria antolatzen dabilta. Uztailaren 17an izango da. Interesatuek Toki Argira jo beharko dute izena ematera.

BEHEKODENDATIK

Jokin Iturriotz

LENIZ AUTOESKOLA

XABIER URZELAI

Jokiñek 22 urte egin ditu Mondragueko jentiei konduziduten erakusten. Renault 5 automobilekin ibiltten zien lehen, eta oin Volkswagen Golfa ibiltten daue: "Mercedes bat be ekarri geuen, baiñe atentziñue emuteko izen zan, eta ez euen efekto haundirik egin".

Ze falta jako Mondraguei?

Ordu konkretu batzuetan zirkulaziño arñaue.

Eta, ze dauko ona?

Zorionez, jente euskaldun asko dauela.

Ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Kilo batzuk, jenixue...

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Urtiek die pelikula bat ikusi ez dotela / Autoeskolakue / Trikitixe gustetan jat.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Picos de Europara.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Ez dot askorik egitten.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Egittetokan, ondo dauen batekin!!!

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Argi dau: automobile.

Denpora librien ze egitten dozu?

Kirol apur bat.

Kapritxo bat.

Familixa danakin jatetxe on batera juetie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.


Donostia, Getaria, Zarautz...

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Libre garela.

Gaztiak uda partie aprobe-txetan daue karneta atarateko, lanpetute?

Bai, oin lan askokin gabitz, baiñe pozik. Jente nagusixekin baiño gustorau egitten dot lan gaztiakin.



"Oin lan haundixe eukitten dogu, baiñe pozik ibiltten naz; gaztiakin gustora egitten dot lan"

Egun dana ibiltten zara automobile konduziduten ez dakiñen jentiek. Hori bai dala peligrusue...

Ez pentsau, hori ez da bape peligrusue. Argi dau ezin nazela lokartu edo despistau, baiñe poliki ibiltten gare, eta ez dau iñungo peligrorik.

Karneta daukogunok azterketa praktikora juengo bagitze, ze?

Gaur egun exijiduten dauenakin gehixenok suspendidu egingo zeukie.

Eta, teorikora juen ezker?

Hor gehixenok ez, hor danok suspendiduko zeukie. Eta bestela, ointxe ipiñiko dutzut azterketie.

"Automobil bat ezin dan lekuen aurreraketie oso hanka-sartze haundixe da"

Inguruotan karneta atarate garestixe da. Autoeskolakuk honezkero aberastute egongo zarie ba...

Bai, ikusi besterik ez dau! Aberatsa nazelako geraketan naz zortziak arte lanien! Euskal Herrixen leku danetan preziuek antzera dauzela esango neuke.

Zein da karreteran egin leiken hanka-sartze haundixena?

Automobil bat ezin dan lekuen aurreraketie. Horreik oso peligrusuek izeten die.

Eta, zein da askotan egitten dogun hanka-sartzie?

Stopak ez errespetau, oiñezkuei pasetan ez itxi... Holakuek askotan egitten dittugu.

NIREBIDAIAHURA/ Iker Sanpedro

Europako ipar-ekialdea / 2004an

Vienarako bidea luzea egin zitzaion Ikerrri: "Autobusean ibiltzeaz nekatuta amaitu nuen, hiri bate-tik besterako bidaiak autobusean egiten genituelako; horrelako bidaiak batean gauza mordoak ikus daitezke, baina erraza da leher eginda amaitzea".

Vienan gora eta behera eman zuten eguna: "Hiri po-ta da, baina hirurok leher eginda geunden, eta kale bate-

an botata zegoen koltxoneta bat hartu eta bertan etzan ginen, lo geratu arte. Poliziak agertu zirenean koltxonetatik jaiki eta berehala egin genuen ospa. Ze ondo egoten zen koltxonetan!"

Vienatik Bratislavarako bidea hartu zuten: "Iruditu zitzaidan Bratislavan ez zegoela mugimendu handirik. Parranda egiteko asmoarekin irten ginen gauean, eta ikuste-koa zen hango diskoteketan zelako neskak zeuden. Gu, bai-na, betiko moduan, ez aurrera eta ez atzera!!! Lo gutxi eginda autobus geltokira joan eta Bre-nora joateko txartelak erosi zituzten: "Brenora iritsi eta egin genuen lehen gauza apart-amentu bat alokatzea izan zen. Eta, afaldu eta ohera sartu ginen berehala". Eguna Breno eza-gutzeko aprobejatu eta gae-

an Pragarako bidea hartu zuten: "Autobusean lo apur bat egin eta goizean iritsi ginen. Etxera itzultzeko autobusa egun bat geroago geneukan, 09:00etan, eta ez geneukan apartamenturik hartzeko asmorik. Horrek esan gura zuen 24 ordu genituela Pragan gora eta behera ibiltzeko".

Eguzkia sartu zen arte Pragako kaleetan ibili ziren hara eta hona, eta gauean Pragan zituzten lagun batzuekin elkar-tu eta ondoan dagoen herri batera joan ziren afaltzera. Pragara parranda egiteko asmoz itzuli ziren, baina giroa berotzen hasi zenerako diskoteka guztiak itxi zituzten: "Hara eta hona ibili ginen nora joan jakin barik, eta azke-nean Non Stop izeneko taberna bat aurkitu eta han egon ginen 06:00ak arte. Handik autobus geltokira joan, eta etxe-rako bideari ekin genion. Gustura geratu nintzen egir-dako bidaiarekin, baita leher eginda ere".

XABIER URZELAI



Argazkian, Iker eta bidaiak berarekin batera egin zuten hainbat lagun.



"Vienan koltxoneta bat hartu eta bertan geratu ginen lo"



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 2511 telefonora.



EZETZASMATU



Non zegoen argazkian ikusten duzuen etxea?
Arrastoa: lehen Tadeoren okindegia zegoen kale hartan.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Cojonudos esparragoak
6/8 pieza 325 g

1,45€ 241 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

SALOME AZURMENDIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Salome!
Galderen erantzun zuzena:
Musakolako kiroldegian.

ARRASATEKO HISTORIA

Joan den mendearren erdialdeko aldaketak (II)

'NIRE HAURTZAROKO...' / VELEZ DE...

Josemari Velez de Mendi-zabalen liburuarekin jarraituz, 50eko hamarkada izango dugu berbegai oraingo honetan:

"1950ean 10.134 biztanle zituen Arrasatek, Santa Agedako gaixoak barne. Hamar urte berandua-go 14.107 ginen herritarrok, erdia baino gehiago emakumezkoak izanik. Biztanleriaren jauzi kuantitatiboa etorkinen eraginari zor zaito, zatirik nagusienean, izan ere urtealdi horretan 3.700 kanpotar iritsi baitziren guregana, Arrasatetik ia mila biztanle ateratzen ziren bitartean. Beraz, biztanleriaren aldaketa kualitatiboa sakonagoa gertatu zen, arrasatear jatorria zutenen kopurua murriztagoa bilakatuz. Dudarik gabe eta estatistikei begiratu besterik ez da egin behar, aldaketa askoz larriagoa izan zen ondoko urteetan (...) Urte haietan Gurea frontoian, iganderoko partidua sasoi onean jokatzeko, astean arratsalde zentratutako egiten zuten herriko pilotari batek arestian gogoratzen zuenez, frontoia etorkinez betetzen zen astegunetan, lanetik ateratzean hara biltzen baitziren pare bat orduz, apolo-etxerantz abiatu bitartean.



1955ean herriko lantegietan 4.300 pertsona ari ziren, biztanleriaren %30 gutxi gorabehera.

1955ean herriko lantegietan 4.300 pertsona ari ziren, biztanleriaren %30a, gutxi gorabehera, inguruko herrietatik goizero etortzen zirenak barne. Zer esanik ez, emakumeen presentzia oso murrizta zen langilerian. Baina, dena den, gerra aurreko joera naturala

Gerrak utziriko hainbat alarguntsak lantegirako bidea hartu behar izan zuten

-hots, hiriburuan neskame sartzeari "on" batean, ostalaritzan aritzea edo etxean jostun bezala jardutea- aldatzen ari zen. Gerrak utziriko hainbat alarguntsak lantegirako bidea hartu behar izan zuen eta aldi berean baita, euren etxeetako premiak

arintzearen, beste batzuek ere. Etorkinen uhinak emakume gazte asko ekarri zuen eta horiek enpresetako ateetan hasi ziren jotzen lan bila. Eredu horri jarraiki, bertako neska gazteek ere, poliki-poliki, bide beretik jo zuten. Nolanahi ere dekada oso bat igarozen emakumeak lantegietan normaltasunez ikusi arte.

Unión Cerrajera eta Elma izan ziren fabrikarik handienak eta bien artean langileria erdia baino gehiago hartzen zuten. Baina, adierazia geratu den bezala, 1956tik aurrera kooperatibismoak bere lehen lanpostuak sorrarazten ditu eta berau da 60ko hamarkadan industriaren sokatik gehien tiratu zuena (...)

Euskal Herrian bi habitat mota izan dira nagusi historian zehar: mediterranearen aldekoa eta kantabriar aldekoa. Lehenengoan hiribilduen eredu nabarmendu da; bigarrenean, berriz, sakabana-tuagoa izan da etxe eta eraikinen kokapena. Arrasate, hirigintzari dagokionez, bigarren multzoan sar genezake, hirigune historikoz aparte auzoek betebeharrak garrantzitsua dutela gogoratzen badugu (...) Hirietako populazioaren hazkunde azkarrak etxebizitzaren estilo konkretu bat jaioarazten du, alturako eraikinak ugalduz".

ARTXIBOA

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko ekainaren 25a / 114. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Ekainari dagokion osoko bilkura astebetez atzeratuta

UBANE MADERA


Oraingo eguaztenean beharrean, datorren eguaztenean egingo dute ekainari dagokion osoko bilkura. Edozelan ere, herriko jaiak direla-eta ez dute berebiziko gairik landuko.

Berez, udalbatzarrari oraingo astean tokatzen zitzaion osoko bilkura egitea, baina, San Juan jaien eraginez, datorren eguaztenera arte atzeratzea erabaki dute. Horrez gainera, Nagore Artamendi udal idazkariak aurreratu digu oraingo batzar horretan, herriko jaiekin lotutakoez gain, ez dituztela oso gai garrantzitsurik landuko. Kontuak kontu zera aurreratu digu: gai ekonomikoen artean, 2002ko likidazioa landuko dutela; administrazio orokorreko teknikari lanpostua betetzeko lehiaketa publikoa deitzeko asmoa dutela, eta segurua ez bada ere, udal zerbitzuak (lorezaintza, kirolegiaren ardura...) esleituiko dituztela.

Edozelan ere, hortxe hitzordua: datorren ekainaren 30ean, 18:00etan hasita.

IBARGOIAKO ZUHAITZAK

Bestalde, eta udal kontuekin segituz, Ibargoiako zuhaitz gai-



Zuhaitzei egindako tratamenduak arrakasta izan du; orain, berriro egingo dute.

xoei ezarritako tratamenduak eragin positiboa izan duela jakinarazi digu Mertxe Mondragon alkateak. Esan digu tratamendua ezarri eta gero, zuhaitzak jaten zebiltzan mamorro asko akabatuta agertu direla. Edoze-

lan ere, gaineratu digu zuhaitzok mamorro asko dituztela eta seguru aski beste behin ezarriko dietela lehenago egindako tratamendu bera. Are gehiago, egitekotan, tratamendua datorren astean egingo dute.



Datorren barikuan, inaugurazioa

Datorren barikuan, uztailaren 2an egingo dute Bañera parkeko eskultura berria inauguratzeko ekitaldia. Hantxe izango dira, besteak beste, Caja Vital Kutxako lehendakari Gregorio Rojo Garcia eta Aramaioko alkate Mertxe Mondragon. 13:00etan hasiko dute ekitaldi hori.

Bañera parkean dagoen eskultura Migel S. Etxeberria Garmendia gipuzkoar eskulturagileak egindakoa da, Caja Vital Kutxaren Gizarte Ekintzak bultzatutako lehiaketaren barruan. **Korapiloak** izena ipini zion. Eta Aramaioren izaeran oinarrituta egin zuen eskultura, uraren eta olaren arteko harremana islatzeko helburuarekin. Orain, Bañera parkean dago, Aramaioko ibaiaren albo banatan ipinita. /U.M.

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

¡Qué pasada, tío!

Gazteona omen gara hizkuntza aldatzen dugun sektorea, berrikuntzak ekartzen dituen, bizitasun eta freskotasun haizea dakarrena. Hizkuntza baten iraupenerako derrigorrezkoa omen da transmisio zuzen bat mantentzea, eta gazteen sektoreak partehartze zuzena izan behar omen du bertan.

Omen, omen, omen... omenaldi bat merezi dutenak Eitb-ko "gazteentzako" programetan hizkuntza aholkulari lanetan ari direnak dira. "Hasiberriak" superserie zorionez komuntzulotik behera botatakoan horrelako perlak uzten zituzten, jonkia eta

gameluaren arteko elkarrizketan: "hi, marrazo, kaka ba al daukaku?". Horienez, transmisioa eta marrazoaren mokordoa irudi bikiak direla pentsarazteko moduan.

Horixe baita, hain zuzen ere, euskara batuak gaur egun daukan herren handienetako bat: gazte hizkera eraginkor baten formazioa, euskara bizi eta fresko batena, transmisioan dugun eten horri aurre egingo diona, eta ze kristo,



"Soluzioa Amurizari aurreko batean irakurri niona da"

guztiok apur bat poztuko gaituena. Ez saltoka jarri, baina bai apur bat poztu.

Zein da soluzioa? Amurizari (profetari) aurreko batean irakurri niona: estrategia orokor bat planteatzea, lan talde on baten proposamena aztertzea, eta garrantzitsuen, instituzioen laguntzarekin (ein, Miren

Azkarate? ein? ein?) plazaratzea, euskaltegi, hezkuntza sistema, literatura, komunikabide eta abarren bidez. Nik

behintzat, gaur egungo "gilipollas", "es que..." eta "que mobida, tío"-ak entzunda ezinbestekoa ikusten dut.

Pixies-en azkeneko bilduma pillatu dut, eta flipatzen ari naiz, tío. Kaña bat de la ostia sartzen dute, eta punkiak eta eskinetoak a patadas dauden bailara honetan jode, ba superguapo dago etxean horrelako musikota entzutea, nik kuadrillako lagunei pasatu behar diet mekaguen fijo betikoa esaten didatela zapatu gauean kriston flotadurakin "ke mierda tío"... Ulertzen, Azkarate? ein? ein?

(Pixies-ena benetan doa, la ostia dira)

LABUR

Eskola garraiorako dirulaguntza eskatzeko epea

Datorren ekainaren 30ean bukatuko da eskola garraiorako dirulaguntzak eskatzeko epea. Honako hauek dira laguntzok eskatzeko beharrezko baldintzak: DBH, HAOSG, erdi eta goi mailako zikloak edo unibertsitate mailako ikasketak egiten ibiltzea. Eskaerak egiteko, matrikula ziurtagiria edo ordainagiria eraman behar da udal-txera. DBHko ikasleentzako kasuan, Arrasateko Institutuko ikasleek ezin dituzte laguntza horiek eskatu.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

UDAKO IKASTAROK

Oraingo astean zabaldu dute Aramaioko udako ikastaroetan izena emateko epea. Telefono honetara deitu behar da horretarako: 902 19 96 47. Bestela, helbide elektronikoa ere bada aukeran: aramaio@hurbil-kulturgaiak.com.

LIBURUTEGIA, UZTAILEAN

Uztailaren 1etik 16ra, honako ordutegia izango du herriko liburutegiak: 17:00etatik 19:30era. Uztailaren 19tik aurrera, goizez zabalduko dute, 10:00etatik 12:30era.

ODOL-ATERATZEAK

Datorren eguaztenean, hilak 30, Arabako odol emaileen elkarte medikuak eta erizainak Aramaion izango dira, odol-ateratzeak egiten. Ordutegia betiko bera da: 16:30etik 20:00ak arte, osasun etxean.

SAN JUAN JAIK

Eguaztenean, San Juan bezpera izanda, herriko auzo gehientsuenetan egin zituzten San Juan suak; baina, horrez gainera, Azkoagakoez auzoko jaiak ospatu zituzten.

Berrikuntza lanak egin dituzte Izpizte elkarteak

UBANE MADERA

Gantzagako auzotarrak pozik daude Izpizte elkarteak egindako berrikuntza lanekin. Azaroan hasi ziren lanak egiten, eta bukatu berri dute. Arabako gotzain On Migel auzoan izan zen, bedeinkazioa ematen.

Auzolanean egin dituzte Izpizte elkarteak lanak, jakina, beharrezkoa zenean, profesionalen laguntzarekin. Elkartearen goiko

aldean egin dituzte lanok: sukaldaria, jangela eta egongela handia.

Lehen esandako moduan, azaroan hasi ziren lanean, eta orain-tsu bukatu dute. Joan den zapatuan, hilak 19 inauguratu zuten. Auzotarrek batera, besteak beste, Arabako gotzain On Migel ere izan zen Gantzagako. Meza esan zuten eta gero bedeinkazioa eman zion elkarteari. Horren ostean, herri bazkaria izan zuten eta gero, erromeria Larrea anaiekin. Zoragarri ibili zirela esan digute.



AINARA INUNCIAGA

Argazkian, Arabako gotzaina bedeinkazioa eman zuen unean.

BOTE PRONTOAN/ Agustín Arrizabalaga · Arexolako auzo alkatea

“Auzoaren egoera triste da; bi urtean lanean gabiltza, egin beharrekoa bukatu ezinda”

Aramaioko auzoen gainean berba egiten segituko dugu. Oraingo honetan, Arexolara jo dugu, Agustín Arrizabalaga alkatearengana. Hara zer kontatu digun:

Arexolan bizi zara, baina hementxe zara?

Bai, beheko baserrikoa. Joxejuakinena (lehen, Jauregi) baserrikoa. Nik ortuan egin nuen etxea, Etxebarrri du izena nireak.

Alkate zaren lehenengo aldia da? Zela aukeratzen duzue hemen?

Lehenengo aldia da. Hemen txandaka egiten dugu. **Zein da auzoaren egoera?** Triste da. Bi urtean lanean gabiltza, bukatu ezinda. Lehenengo saneamendua eta egin zuten eta orain gasifikazioarekin dabilta. Horrez gainera, orain 15 egun onartu zieten zoladura egitea eta uraska inguruak konpontzea, baina ez dakite noiz hasiko diren.

Batzarra egin behar dugu erabakitzeke zela gura dugun antolatuta gure hori, eta erabaki ostean hasiko dira lanean.

Eta zer egin gura duzue? Plaza konpondu eta uraskak dauden lekuan, biak utzi barik, iturri bat utziko dugu eta inguruan uraska txiki bat. Ondoa ipiniko ditugu banku



“Arexolarrek duten pentsaera da jabetza gehitu behar dela; hortaz, lursail gutxi salduko dute”

pare bat edo hiru bat. Horrez gainera, ea elizaren ondoan jausita dauden hormak jasotzen dituzten...

Horren harira, elizak balio historikoa dauka, ezta?

Bai, baina itxura denez, egurrezko bobeda dauka, baina oso garestia da hori ateratzea eta Elizak ez dauka hori egiteko interesik.

Egin beharreko lanez gain, baduzue beste beharren bat?

Diputazioko Ongizateetik bidali zituzten gutunak esanez laguntza eska dezakegula elkarterako materiala erosteko edo auzolanean egiten diren lanendako. Tramitatu egin genituen, baina gero esan ziguten Udalaren bitartez egin behar genuela hori. Gehienbat, gura dugu laguntza elkarteak egin behar diren lanendako: gasa sartu eta mahai berriak ipini. Auzolanean egin

beharreko lanendako ere nahi dugu laguntza.

Bestela, lau urteotarako dituzuen proiektu nagusienak?

Badago estrada zahar bat (harrizko bide zaharra), lehena-ganaduak eta handik pasatzen ziren, baina, orain abandonatuta dago. Askotan berba egin dugu hori txukuntzeko aukeraz, ganadua hortik ibiltzeko, errepidean bueltara ibili barik. Askok buelta handia egin behar izaten dute ganaduekin. Bestalde, auzo sarreran bada elizaren pareta bat, eta haren zati batek bista kentzen die auzora autoarekin datozenei. Udalari esan diogu plaza konpontzearekin batera hori ere konpontzeko. Baina Elizaren eta Udalaren artean eztabaidatzen dabilta zeinek egin, eta azkenean, auzotarroi kalte.

Eginda duzue eskaera eliza edo zatiren bat auzoari emateko?

Emiliorekin berbetan egon ginen konponketak egitearen trukean, elkartearen gainean dauden lokalen erabilera osorik auzotarrendako izateko. Elkar-tea handitzea gura dugu, batez ere, gazteak datozenean, leku txikiarekin egoten direlako. **Zela ikusten duzu etorkizuna?** Ondo. Jende jatorra dago, lan egiteko gertu.

LABUR

Maila altua egon zen joan den zapatuan Mungiako eskolarteko txapelketan

Hogeita hiru bertsolarik jardun zuten joan den zapatuan Mungian, Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala jokatzeko. Hamabi bertsolari gaztetxo mailan lehiatu ziren (14 urte bitartekoak) eta hamaika gazteen mailan (15 urtetik 18 urtera bitartekoak). Horien artean, Markel Arriolabengoa (gaztetxo mailan) eta Iker Agirre (gazteen mailan) aramaioarrak lehiatu ziren. Lehiaketak bi fase izan zituen, eta aramaioarrak ez zuten lortu bigarren fase horretara pasatzea. Hori bai, kritiken arabera, Iker Agirrek argi erakutsi zuen Arabako bertso eskoletan egiten dabilzan lan handia. Markel Arriolabengoa kontatu digunez, berriz, maila altua ikusi zen Mungiako saioan, bereziki, Iparraldetik joan ziren bertsolarien artean. Markelek argi du zein den horren arrazoia: “Gu oso gutxi *entrenatzen* gara, astean behin-edo; eta badaude batzuk egunero *entrenatzen* direla”. Hala, esan digu aramaioarrak gustura parte hartu zutela lehiaketan, baina penaz etorri zirela.

Kontuak kontu, bertsolari guztien artean, Beñat Gaztelumendi añorgarrak eraman zuen txapela gazteen mailan, eta Maddalen Arzallusek gaztetxo mailan. Bertso saioak goizez eta arratsaldean izan ziren eta 300 bat ikusle erakarri zituzten.

Hemendik aurrera, aramaioarrak ezin izango dute erabili Garagartzako DAR gunea

Orain arte, aramaioarrak Garagartzako DAR gunea erabiltzen zuten zenbait zabor botatzeko (etxetresna elektrikoak...); Aramaioko Udalaren eta Mankomunitatearen artean hitzarmena zegoen hori egiteko. Baina Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digu hitzarmen hori apurtu egin dela, Garagartzako gunea erabiltzeko prezioak izugarritzko igoera izan duelako. Horren ondorioz, hemendik aurrera, aramaioarrak hilean behin bota beharko dituzte halako zaborrak, tamaina handiko zaborrekin batera, Aramaion.

ERRETRATUZAHARRA

Mondra futbol
taldea
Logroñon

Badirudi Arrasaten futbolareki-ko zaletasun handia dagoela. Horren irudi, irakurle batek Mondraren antzinako argazkien bilduma utzi digu, noizean behin argazki bat argitaratzeko.

Bilduma estreinatzeko, irudiotako hori aukeratu dugu. 40-50eko hamarkadako dela esan digu gure berriemaileak. Logroñoko Las Gaunas futbol zelaian ateratakoa.

Honako hauek osatzen zuten sasoi hartako Mondra futbol taldea, goian, ezkerretik hasita: Eugenio Baltzategi, Imanol Zeziaga *Divino I*, Jesus Vitoria, San Martin (Elgoibarkoa), Jesus Azkargorta *Monti*, *Xabale* (Bergarakoa) eta Suarezek (Elgoibarkoa). Eta behean, ezkerretik eskumara, honako hauek daude: Carazo (Gasteizkoa), Castor Uribe, Treviño atezaina (Gasteizkoa) eta Zabala *Putxulu*.

Konturatuko zinetenez, jokalaria-ko dezente ez ziren mondragoetarrak. Kontua da jokalarien joan-etorri handia izaten zela taldeetan, soldadutzarengatik, bestelako taldeetara joaten zirela-



ko... Halakoetan, inguruko herrietatik ekartzen zituzten jokalaria, bereziki, Bergararik eta Gasteiztik.

Gure berriemaileak kontatu digu, era berean, sasoi hartan talde gehienek erregional mailan jokatzeko zutela; berez, futbol txapelketa desberdina izaten zela eta baita futbol taldeen

mailaketa ere. Edozelan ere, herriak talde ona zuela gaineratu digu, eta jende dezente joaten zela partiduak ikustera. Kontatu digu, baita ere, partiduetara-eta joateko, sasoi hartan autobusak-eta gutxi zeudela, hortaz, eurek bidaiarik gehienak trenez egiten zituztela edo bestela, autobus xelee-

tan. Batzuetan, kamioi bati jarlekuak ipini eta hura erabiltzen zuten joan-etorriak egiteko.

Argazkia: Centro de Acción Catolicako bilduma
Informazioa: Eugenio Baltzategi.
Urtea: 40-50eko hamarkada.


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Uarkapen
izan ziren
arazoak

Uarkapeko etxe berriak eta pilotalekua egiteko orduan, lur mugimenduak gertatu ziren Altamiran, eta Azatza etxea izenez ezagutzen den etxebizitza multzoan pitzadurak izan ziren. Uarkapeko lanak geratuta egon ziren luzaroan, eta Altamirako bizilagunak pasabide barik geratu ziren. Mendiari ondo eusteko horma egitea izan zen irtenbidea.



≈ 1991 Pasabidea itxita egon arren, herritarrak egunero ibiltzen ziren aldapa hartan gora eta behera.



2004 Gaur egun, arazoa konponduta, errepidea egoteaz gain Gernika Oinezkoen Zumardia ere hortik pasatzen da.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ESKANDINAVIAN zehar zirkuituak

UZTAILEKO Irteerak 8 egun / 7 gau

FINLANDIA IKUSGARRIA

HOTELAK *** / ****

MO/ME 1.374

Ikustekoak: Rovaniemi, Kuopio, Koli, Savonlinna, Porvoo y Helsinki.

NORUEGA IKUSGARRIA

HOTELAK *** / ****

ME/HG 1.394

Ikustekoak: Oslo, Geilo, Bergen, Valle de Voss, Sognefjord, Región de los Fiordos, Crucero Geiranger, Alesund y Trondheim.

ERREP. ETA BALTIKOKO PERLA EDERRAK

HOTELAK *** / ****

ME 1.434

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Báltico y Estocolmo.

FIORDOETAKO INPERIOA

HOTELAK *** / ****

MO/HG 1.524

Ikustekoak: Bergen, Valle de Voss, Región de los Fiordos, Oslo y Copenhagen.

BALTIKOKO ERREPUBLIKAK

HOTELAK *** / ****

ME/HG 1.518

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Helsinki y St Petersburgo.

HORIZONTES DE GRANDEZA I

HOTELAK *** / ****

HG/ME 1.519

Ikustekoak: Rovaniemi, Kiruna, Parque de Abisko, Islas Lofoten, Vesteralen, Tromso, Fiordos de Lyngen y Ulls, Ctra Atlántica, Alta, Cabo Norte, Karasjok y Lakselv.

ISLANDIA IKUSGARRIA

HOTELAK TUR / 1ª


HG 1.849

Ikustekoak: Reykjavik, Región de Nordurland, Myvatn, Lago Myvatn, Egilsstadir, Región de Austurland, Región Skaftafellssylur, Skogafoss, Hvolsvöllur, Círculo Dorado y Laguna Azul.

400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

902 108 108 - viajesiberia.com

EBAL-001-MMM



ZURE OPORRENGATIK EGIN
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

GIPUZKOAKO BULEGOA

DONOSTIA

- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Churruca, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San martin, 6 Tel. 943 42 00 71

ARRASATE

- Kontezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72

BERGARA

- Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70

Irteerak Bilbotik. Prezioak pertsonako logela bikoitzea eta aurretik aipatutako erregimenean, uztaileko egu konkretuentzat bakarrik. Aireko tarifa-igoera, tasa bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: HG, Hotele eta Gosaria; ME, Mantenu Erdia; G, Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**

Irteerak
BILBOTIK

VIAJES  IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37. 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- BEGOÑA BARCINA Otolora lizentziaduna 29 635 70 88 88
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22